

«Ez dut soilik ederra izan nahi, jendea hunkitu nahi dut, eta gorroto banau, gorroto nau»

Folklorerik ez, nostalgiarik ez. Erroak lurrean sartuta bai, baina hortik gora askatasuna entzuleen erraietaraino iristeko.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Anhauzeko semea. Nolako familian sortua?

Ene aita laboraria da, behiak ditu. Ama idazkaria izan da orain arte. Aitak erretreta hartu du, baina behiekin segitu eta mozkinak zuzenean saltzen ditu. Belaunaldi horretakoek lana eta familia izan dituzte beti oinarri eta lana kenduta ez dakite zer egin. Hiru anai-arreben artean zaharrena naiz. Anaia gaztea duela bi urte itzuli da herrira bizitzera. Erakuntza publikoak egiten dituen Tolosa Okzitaniako enpresa batean ari da lanean, energia berriztagarrien alorrean. Ipar Euskal Herrian eta Biarno eskualdean merkatua zabaltzeko proposamena egin zion enpresari eta herrian bizi eta lan egiten du. Oso apustu interesgarria da. Nik neuk ere laborari lana eta turismoa uztartzeko landetxe moduko bat egitea pentsatu nuen artista bilakatu baino lehen. Orain arte bizi izan naiz Euskal Herriko barnealdean eta beti sentitu dut tokiko ekimenak bultzatzeko beharra. Halakoetan zabiltzanean maiz nahi dizute politika etiketa bat ezarri, baina niri horrek bost axola. Herri txikietan abertzale izatea edo eskuindarra izatea baino garrantzitsuagoa da elkar ezagutzea eta elkarrekin gauzak egitea. Indar hori egin behar da, barnealdea husten ari delako. Egiten ez bada gazte guztiak joanen dira. Badugu behar gorri hori eta horretan sinesten dut.

Horregatik hasi zineten, esate baterako, Anhauzeko inauteriak antolatzen 2007an?

Donapaleun ikasi nuen joalduna egiten eta hori egin nahi nuen herrian, baina gure modura. Ohartu nintzen Europan beste joaldun pertsonaiak bazirela eta interesgarria iduritu zitzaidan

Anhauzeko joaldun pertsonaia propio bat sortzea. Nafarroa Beherean eta Ipar Euskal Herriko herri gehienetan jaien antolakuntza bakarrik gazteek bultzatzen dute. Anhauzen herriko jaiak urteko animazio bakarra izaten ziren azken hamarkadetan. Inauteriak aspalditik ez ziren antolatzen eta herriko gazteei esplikatu nien inportantea zela beste animazio bat herrian egitea eta bereziki, beste belaunaldiei irekia izan behar zela. Bertzalde ikusi nuen Anton Luku adiskidea oso lan ona egiten ari dela jendeari azaltzen zer diren gure antzerki eta musika ohiturak eta libertimenduak bultzatzen. Halako hausnarketa proposatu nien gazteei eta horrela abiatu ziren inauteriak. Hiru lagun ginen hasieran eta taldea emeki-emeki handituz joan da. Orain hiru egun egiten ditugu. Gau batez ateratzen gara, biharamunean

NORTASUN AGIRIA

Thierry Biscary, *Ttirritt*, Nafarroa Behereko Anhaize herrian sortua, 1976ko agorrilaren 29an. Paxkal Indorekin Kalakan taldea sortu zuen 2009an. Labèque ospe handiko ahizpa piano jotzaile lapurtarrekin hasi zen Kalakan kontzertuak ematen Europan barna. Haien bidez Madonna ezagutu zuten eta honek 2012ko bere mundu birarako kontratatu zituen "Aldapeko" kanta emateko, besteak beste. Zazpi hilabetez 88 emanalditan parte hartu zuten. Areto txikietan aritzetik 50.000 ikusleren aurrean kantatzera pasa ziren bat-batean. Bira bukatutakoan haien bidea jarraitu eta iaz 58 kontzertuko bira egin zuten Europan eta Asian lehen aldiz. Erroetara itzultzeko beharrak *Elementuak* bigarren diskoa grabatzera eramanez.



“Aspalditik jaso dugunaren eta egunero hartzen dugunaren nahasketa da gure altxorra. Denok mestizoak gara”.

etxez etxe ibiltzen gara eta bildutakoarekin azken egunean paella handi bat eskaintzen diegu herritarrei. Anhauzarrentzat eginiko zerbait da eta bazen horren beharra. Gainera eraikin berriak egin zituzten herrian eta kanpoko jendea etorri zen bizitzera. Orain jendea hasi da gogoz parte hartzen inauterietan eta bestetan, eta etxe berrietako jende batzuk ere etortzen dira. Oso pozgarria da hori.

Donostian noiztik bizi zara?

Urritik. Urtarrilean Aretxabaletako neska batekin ezkondu naiz eta han bizi gara.

Aldaketa handia?

Bai, baina hirietan ere badira gauza asko egiten ahal direnak. Ni laborarien semea naiz, eta bertzerik ezin dut erran, baina badira jakintza batzuk berreskuratu beharko genituzkeenak. Horretarako, adibidez, produkzio talde txikietan bildu daiteke jendea, etxalde komunitario moduko batzuk egin eta gero han ekoizten dena banatu lan egin dutenen artean... Nekazaritza estentsiboaren logika nagusitu da, ordea. Beti handiago, beti gehiago da helburua. Aitaren etxaldean nik ikusten dudana da Europako diru-laguntzen behar handiegia dutela. Diru sarreren %65-70

Europatik etorritako dirua da. Horrek huts egiten badu, akabo. Horrekin batera, Europak ere erraten die zer landatu, zer erein behar duten toki bakoitzean. Ulertzen dut eroso dela supermerkatu iristea eta denetik ukaitea, baina sistema hau noizbait eten egin behar da eta hori egiten ahal da. Ez naiz ameslari bat, hau ez baita urrun gure iraganen. Kalakanen ere logika horretan gaude, horregatik diskoa soilik saltzen dugu kontzertua bukatutakoan, jendeari zuzenean emateko eta haiekin solas egiteko.

Zer erran nahi diozue jendeari?

Gauzei balorea eman behar zaiela. Geuk geure musikari ez badiogu balorerik ematen nork emanen dio? Saltzaile arrunt batek? Jendeak jakin behar du haiek diskoarengatik ordaintzen dituzten 15 euroekin guk beste disko bat egin ahal izanen dugula edo apainketak aldatzen ahalko ditugula. Baina horrez gain, Kalakanekin adierazi nahi dugun beste mezua da musika egitea, kantatzea edo ongi pasatzea gure ardura dela eta gure esku dagoela. Jendeak gero eta gutxiago kantatzen du, errate baterako. Tabernetan orain ez du inork abesten, ezta hitz egiten ere kasik, musika altuegi jartzen dutelako. Iparraldean ere gertatzen

THIERRY BISCARY

zaigu, ez pentsa. Duela gutxi ikusi dut nik hori Garazi aldean. Baina horren aurrean galdetu behar dugu: nor da hemen bezeroa? Nor da kontsumitzailea? Badugu eskubidea tabernariari errateko ez dugula zaratarik egiten, kantatzen dugula eta hori ere on dela bere negozioarentzat. Ez gara ausartzen eta gauzak uzten dira espezialisten, profesionalen esku.

Kantuzale talde asko badira gaur egun, ordea...

Bai, eta gustatzen zait ikustea Baionan kantuz, Iruñean kantuz... eta halako ekimenak. Oso ederra da. Baina bitxia egiten zait jende guztia liburuxkarekin ikustea. Hori da Google edo Wikipediarekin egiten duguna: jakintza bat bilatzen dut, informazioa jaso eta lagunekin konpartitzen dut une jakin batez, baina nire memoriarekin ez dut lanik egiten. Ados naiz kantatzea gauza polita dela, baina lagunekin benetan konpartitu nahi baduzu behar duzu barneratu, zure gorputzetik pasarazi lehenbizi. Zeure buruan sartu. Aireaz gain edukia ere ikasi behar da. Onartzen dut batzuek horrela egin nahi ez izatea, baina gero ez negar egin inork ez badu gehiago kantatzen edo parte hartzen.

Euskararekin ere hori gertatzen da?

Eskuara dakiten batzuek ez dute erabiltzen ez dutelako aurkitzen haren baliorik. Nik lau hizkuntza dakizkit. Egiten dut kiskun-kaskun bat: batzuekin eskuaraz, besteekin frantsesez, ingelesez edo espainolez eta gehiago orain Donostian naizela. (Ez nuen uste hainbesteko lekurik izanen zuenik gaztelerak Donostian. Gu etortzen ginen besta egitera, euskal girora eta ez nintzen ohartzen). Ni eskolara frantsesez joan naiz. Jaio nintzen etxalde batean, nire aita-ama eskuindarrak dira eta uste zuten eskuara etxean ikasiko nuela. Orain, uste dut, ohartzen ari direla hori ez dela hain erraza. Beraiek ezagututako garaian agian bai, baina gure garaian hautu zorrotza egiten ez bada transmisioa oso zaila da. 18 urterekin barnetegia egin nuen Arantzán. Behar nuen ikasi eta egin nuen indar hori. Horrek eguneroko bizitzan asko laguntzen dit. Nik nire bizitzarako nahi dut eskuara. Ez dizut zuri inposatuko. Zuk ez baduzu behar hori zure eskubidea da, baina nik nahi dut niretako. Zuk ere ez inposatu niri ezer. Gauzak galtzen dira eta nik erran nahi diot jendeari nahi duena egin dezala, baina kontzientea izan dadila gure hautuek ekartzen dituzten ondorioez. Hizkuntzarena hautu bat da, beste asko bezalakoa. Nik adibidez ez dut garirik jaten. Nire hautua da eta ez dut bizitza pasatzen jendeari esplikatzen zein kaltegarria izan daitekeen garia gorputzerako.

Kalakan taldeak oinarri du kantagintza tradizionala, baina gero berrikuntzak oso modu librean egiten dituzue.

Niretzako aski garrantzitsua da aske izatea. Hausnarketa batetik eta Labèque ahizpen aholkuetatik heldu da Kalakan. Taldea emeki-emeki osatu da. Europako sala klasiko ederreren hasi ginen Ravelen boleroa jotzen Labèque ahizpekin, gure txalaparta eta danborrekin. Hasieratik bertatik eskatu ziguten zerbait kantatzeko eta lehen egunetik arrakastatsua suertatu zen. Horren formala den musika klasikoaren mundura heldu ginen hiru baserritar gure betiko kanta eta gure txalapartarekin eta jendeak *flipatu* egiten zuen. Gure ilusioa transmititzen genien eta Labèque ahizpek, Katik bereziki, lehen momentutik esan ziguten hor altxorra genuela. Hori landu behar genuela eta gero gauza berriak sortu. Are gehiago erranen dizut: gu ari ginen Baionako kontserbatorioko perkusionista batekin, kaxa jotzen zuena, bera zen musika jakintsua, baina esan ziguten behar genuela musikari hori aldatu ez zelako eskualduna. Azkenean Jamixeli erran genion eta handik gutxira konturatu ginen berarekin dena errazagoa zela eskualduna delako, ez soilik euskaraz mintzatzen dela, baizik baita ere ezagutzen zuela zer erran nahi genuen eta nola. Orduan sortu zen gure lehen diskoa. Indar hori izan zen Madonnari ilusioa egin ziona. Madonnaren musikariek beren musika tresnekin indartu egin dute gurea, ahotsen harmonia bultzatuz edota bateriaz gure danborren soinua handituz. Gure indarra da gai izatea ahots hutsez eta danbor batzuekin jendea hunkitzeko. Gure nortasuna hori da eta horretan sinesten dugu.

Zuek etxean ikasi duzue abesten. Transmisioa Hegoaldean ahulagoa da?

Gure gizarte honetan kantua ikusgarri huts bilakatzen ari da. Ez da sinpleki bizitzen den zerbait. Preseski badut proiektu bat horren inguruan: "Erroak eta kimuak". Musikari eta zinegile portugaldar bat ezagutu dut, Tiago Pereira, Julio Pereira musikariaren semea. Bera hasi zen jende arrunta filmatzen kantuz ari edo musika jotzen ari, toki desberdinetan. 1.800 bideo ditu jada eginak. Nik *flipatu* nuen Portugalgo aniztasuna ikustean. Bideo horretan agertzen diren pertsonak ez dira kantari eta musikari onak, baina izugarri bizi dute barnetik eta zerbait heltzen zaizu. Horrek pentsarazi zidan non ote den gure oinarria: edonork edozein unetan abesten duen kantuan edo txistukatzen duen airean. Musika hortik heldu da, baina ez dugu hori baloratzen. Horregatik nahi dut hori ere egin hemen Euskal Herrian. Iduritzen zait

AZKEN HITZA

Autentikoa

“Gu saiatzen gara jendeari azaltzen inportantea dela interpretatzea, sinplea eta autentikoa izatea. Ez gara folklorean ari. Madonnak zergatik hautatu gintuen, bestela? Hori ezean, gelditzen zaizuna irudi polit bat da. Jendea kantaldi hori kontsumitzera etortzen da eta edertasun horretan gelditzen da. Nik ez dut bakarrik ederra izan nahi. Nik nahi dut hunkitu jendea eta gorroto banau, gorroto nau. Nahi diet zerbait eman eta horretarako interpretatu egin behar da. Ezin duzu eman ‘Eperrak’, adibidez, country moduan. Ez du zentzurik”.

Iparraldean transmisioa badela oraindik, baina pedagogia lana egin behar dela azalduz Antton Lukuk egiten duen bezala libertimenduak, Ziburuko maskaradak, pastoralak, bertsolaritza... zer diren, zertarako egiten diren. Garrantzitsua da belaunaldi berriei azaltzea eta zaila da. Borroka bat da.

Bi urtean behin Aldudarrak elkartekoek egiten dute kantaldi bat musikari edo talde baten inguruan (Imanol Kantuz, Oskorri Kantuz...), eta era honetako bilkuretan esaten diet beti ez dugula ikuskizunean gelditu behar. Helburua da kantuz gozatzea. Hasten bazara musika tresnak sartzen kantatzeko modua mugatzen duzu. Eta gurea modu librean kantatzea da. Kantari tradizionalak hatsa hartzen dute nahi duten tokian eta hori ederra da. Mixel Ducau bere gitarrarekin Erramun Martikorenaren atzetik doa, eta hala behar du izan. Begiratu inguruan eta ikusi zer jende gutxi dagoen Jacques Brel bezala kantuak interpretatzen dituen; hori baloratu behar da. Musikariek lagundu egin behar diote kantariari, ez zer egin behar duen esan. Kantu tradizionala nortasun kontua da: zu zara zu eta ni naiz ni eta ez zaitut bortxatu behar ni izan zaitez. Horrek aniztasuna ekartzen du eta horregatik pertsonaiak ikusten dira Pereiraren bideo horretan. Hor ez dago kopiarik, eta hemen aldiz, kopia asko ikusten dut nik.

Kantu bereziren bat zure bizitzan?

New Yorken bira prestatzen ginelarik, adibidez, beharra izan nuen “Agota” kantua ikasteko eta kantatzeko. Eta zentzu bat antzematzen nion horri. Nire lehen aldia izan da kantu bat ikasi eta horrenbertze barnatzen nuena. Oso intimoa izan zen. Iduritzen zait hain barneratua dudan istorio hori nire bizitza osoan gogoan izanen dudala eta badakit kantu horrekin segur norbait hunkituko dudala.



Zer aurkituko dugu *Elementuak* zuen bigarren diskoan?

Xumetasuna. Ahots hutsak, perkusioak, albokak, arnas bat hasieratik bukaerara arte. Formatu eta eduki desberdineko hamalau kantu daude. Batzuk oso antzinekoak dira eta besteak berriak. Helburua jendeari mezu bat helaraztea da beti: ama lurrarekiko atxikimendua edo amaren eta bere semearen arteko harremana, errate baterako. Zuzenekoak ere halako emozio desberdinak eskaintzen ditu. Behar ditugu gure sustraiak zaindu eta, era berean, behar dugu modernitatea, kanpora begiratu, harremanetan sartu eta kanpotik inspiratu. ■